



**Ausartu zaitez,
gidabaimena
euskaraz!**

Buruntzaldeko Udalek *Semaforo berdea!! Gidabaimena euskaraz* ekimena berriro ere martxan jarri dute. Iazko kanpainiako emaitzek, (gidabaimena euskaraz ikasi dutenen %70etik gora gainditu dute azterketa teorikoa), garbi utzi dute ez dela beldurrik izan behar azterketa euskaraz egiteko garaian. /4-5



LH2ko gaztetxoek urtarok antzestu zituzten eta DBH 4 mailako gazteek eskainitako *Kutsidazu bidea* lanarekin barre ugari egin zituzten ikusleek.



Antzezlez betetako herria

Bihar Kukukako kideen desfilea
egingo da eta igandean dantza saioak

Kukuka antzerki eta dantza eskolak antolatzen duen astea aurrera doa.

Landaberri ikastolan eta Zubietako antzerki taldean lehenengo pausuak ematen ari diren haurrak edo urte batzuk daramatzatenak, DBHko gazteak ikusi ditugu taula gainean aste honetan.

Baina antzerkiak gain dan-

tza ikusteko aukera ere izango da. Larunbatean desfile erraldoiak herriko kaleak musikaz beteko ditu. Igandean, berri, bi saio desberdinetan goizean, euskal dantza eta sor-kuntza eta arratsaldean, dantza garaikidea.

Ekainaren 6ra arte, Kukukako lagunak atsedena izango dute. •

Txakurren jarrera ezagutzeko ikastaroa

Lasarte-Oriako Udalak *Nobel y Fiel Amigo* elkartearen laguntzaz eta txakurren jabeen zuzendurik eskaini duen ikastaroaren saio berria egin zen asteazkenean.

Honetan, txakurraren lasaitasun seinaleak nola iragarri azaldu zieten Kultur Etxeko hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrei.

Baina ikastaro hau teorikoa izateaz gain, praktikoa ere bada eta hain juxtu, hurrengo saioa, ekainaren 22koa, Atso-bakarreko parkean egingo da eta praktikoa izango da. •



Txakurrek haien egoera adierazteko egin dituzten seinaleak azaldu zituzten asteazkeneko saioan.

GIZARTEA /3

**Zabaleta
auzoan Teresa
sorginaren
zain daude
jaiak hasteko**

KIROLA /6

**Garazi Gomez
gimnasta
bigarren
Gipuzkoako
txapelketan**

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

GOIEGI
Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 - 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

Ekainetik Irailera
gauero* zabalik

Asteko menu berezia
ikusteko:

www.goiegi.com

* igandea eta astelehena ezik

Jai giroa Zabaleta auzoan

Maiatzaren 31tik ekainaren 5era festetan dira

Asteartean, hilaren 31 hasiko dira Zabaleta Auzoko jaiak haurren-tzako jolasekin eta japoniar bonbekin.

Beste urte batez, Zabaleta-ko Jai Batzordeak egitarau zabala antolatu du ekainaren 5a, igandera bitartean. Baina, jaietako benetako protagonistak haurrak izango dira urterto bezala.

Egitaraua

Jaiak asteartean hasiko diren arren, Teresa Sorgina ostiral arratsaldera arte ez da jaitziko. Aurten, gainera, auzoko trikitilarien hotzen konpainia izango du.

Aurretik, antzerkia, haurrentzako merienda eta *Porrotx* pailazoarekin txupinazoa edukiko dugu. Ostean, dantza garaikidearen emanaldi handia izango da, *Xumela* abesbatzako kideek euren ahotsez disfrutatzen auzo eskainiko digute. Eta eguna amaitzeko, gauerdian *Itzartu* eta *Ahuen* musika taldeek kontzertua eskainiko dute.

Gozatzeko eguna

Larunbatean, Joxe Migel Aranzadien oroimenezko eskoba eta mus txapelketak jokatu dira eta toka txapelketa ere izango da.



Hipo eta Tomax bihurriek etxeko txikiaren algarak sorraraziko dituzte.

Arratsaldean, "*Iriren Lagunen*" puzgarri festaz gozatuko dute gaztetxoek eta 19:00ak aldera, "*Hipo eta Tomax*" pailazoaren txanda izango da.

Gauean bertso saioa egongo da Ane Labaka, Uxue Alberdi, Andoni Otamendi eta Julio Sotoren eskutik. Gai jartzailer Unai Muñoa izango dugu.

Eta gauari amaiera ona emateko Gazte Rock Gauean *Gaueko Itzalak*, *Eratu* eta talde sorpresak joko dute.

Denak baseritarrez

Igandean, jaietako amaiera ona emateko goiz hasiko da

eguna, diana eta auzo garbiketaren txapelketarekin.

Ondoren Landaberri ikastolako taldeak dantza erakustaldia eskainiko du eta bestalde, ez dira igandean ohiko proba mistoa eta herri bazkaria faltako. Bazkaldu aurretik idi probak ikusteko aukera egongo da eta bazkalostean, erromeria eta haurrentzako herri kirolak antolatuko dituzte.

Eta herri kirolez gainezka ageri den egun honetan base-ritarrez jantzeko gomendioa luzatu dute antolatzaileek.

Festari amaiera emateko, Teresa sorgina agurtuko dute azken trakarekin. •

MUSIKA ESKOLA

Aurrematrikula egiteko azken eguna

Etxeko txikietatik hasi eta helduenera, Lasarte-Oriako Musika Eskolak adin guztietarako eskaintza aurkezten du.

Txokoak, hastapena, musika hizkuntza, helduen taldea... hauetan aurrematrikula egiteko interesatuek, Manuel Lekuona kultur etxean bigarren solairuan, 9:00etatik 13:00etara joan behar dira. Gaur da azken eguna.

Honetaz gain, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazten du, derri-gorrezkoa dela aurrematrikula egitea uztailearen 1etik 15era bitartean burutuko den matrikulazioan epean plaza izateko. •

HAUR ESKOLA

Izena emateko azken eguna

Haur-ekola izena emateko epea gaur amaitzen da. 2009ko urtarilaren 1etik gaur egunera bitartean jaiotako haurrei zuzenduta dago. Aurrematrikula egiteko unean, 40 euro ordaindu beharko da eta zenbateko hori matrikula pagatzean deskontatuko da.

Goizeko 09:00etatik 13:00ak bitartean Manuel Lekuona kultur etxetik pasa beharko dira aurretiko izen ematean interesa-tuak daudenak. •

KIROLA

Alebinen kirol sustapeneko azken saioa

Udal Kirol zerbitzuak 2010-2011 ikasturtean Lasarte-Oriako alebin mailako adinean dauden neska-mutilentzat garatzen duen kirola sustatzeko kanpaina amaierara iristen ari da.

Larunbatean, maiatzak 28, eguerdiko 12:00etatik aurrera Michelingo Kirol Gunearen Atletismoko Moduluan saio berezia garatuko da eta bertan parte hartzen dutenek ikasturtean zehar ikasitako praktikan jartzeko aukera izango dute. Jardueran parte hartuko dutenek kirola egiteko egoki jantzita joan behar dute aipatutako instalazioetara.

Saioan atletismoko zenbait proba egingo dira eta kirol materiala hala nola, bizikleta, patinak edo kometa, zozketatuko da kurtsoan zehar ekitaldietara maiztasunez joan diren parte-hartzaileen artean. •

ELKARTRUKEA

L'Harmonia de Valldoreix abesbatzaren kontzertua

Lasarte-Oriako Alboka abesbatzak urteko elkartrukeekin jarraituz, apirilaren 30ean Puerto de Santa Mariako *El Jardín de Schönberg* abesbatza egon zen, Bartzelonako *L'Harmonia de Valldoreix* abesbatzaren bisita izango du asteburu honetan.

Larunbatean, 20:00etatik aurrera, Brigitarren komentuan, eskainiko duen kontzertuan Kataluniako abesti herrikoiak entzun ahalko dira. Alboka abesbatzak ere parte hartuko honetan eta elkarrekin *Maitia nun zira* abestia eskainiko dute.

Bestalde, Alboka abesbatzak igandean 11:30ean Oriako Karmengo kaperako meza girotu eta ostean, kontzertu txikia eskainiko du. •

HAUTESKUNDEAK 2011

PSE-EE beste alderdiekin bilduko da

Lasarte-Oriako PSE-EE alderdiak jakin arazi du, Jesus Zaballos alkate gaiak zerrenda bozkatuena izanagatik maiatzaren 22ko hauteskundeetan zinegotziak lortu dituzten alderdiekin bilerak izango dituela.

"Zinegotzi kopuru txikien eskuratu duten alderdietatik handienera egingo ditut bilerak, nik hauteskundeetarako aurkeztu nuen proiektua aurrera ateratzeko behar dudana babesa eskuratzeko asmoarekin," azaldu du Zaballosek. •

BIYAK BAT ELKARTEA

Trafikoa kudeatzeko zentrorra txangoa

Biyak Bat erretiratuen elkarteak jakin arazten digu, ekainaren 16an Otxarkoagan dagoen Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentrorra antolatu den txangorako lekua dagoela.

Autobusa 9:00etan aterako da elkarrearen egoitzatik. Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentro modernoa bisitatu eta Oinezkoen praktika egokiak proiektzioa ikusiko da. Lasarte-Oriara 14:00ak aldera iritsiko dira.

Bisita doanekoa da, bazkide ez direnentzat ere. Txangoan izena emateko interesa dutenek, bulegora hurbiltzea besterik ez dute 10:30etik 12:30era. •



Artikutzako parkeko zelai eta bideetatik barrena ibili zen hogeitabat mendizalek osatutako taldea.

Arg.:A. Uriarte

12 orduko ibilaldia Nafarroa eta Gipuzkoako mendietan zehar, Arantzatik Lasarte-Oriara

Ostadar Mendi elkarteko zenbait kide eta beste hainbat herritarrek, guztira Lasarte-Oriako 20 bat lagunek, Nafarroako Arantzako San Juan Xar eremutik, Lasarte-Oriarainoko mendi ibilbidea egin zuten lehengo larunbatean, maiatzaren 21ean.

Aurreko urteetan ere ibilaldi luzeak egin ditu taldeak, beste zenbait tokitatik Lasarte-Oriara etorri dira, esaterako Arantzazutik, Aralarreko San Migeletik edo Arratetik.

Aurten, Arantzatik atera eta Artikutzako parkea, Añarbe urtegiaren eremua, Epele

herrixka eta Buruntzaldeko mendiak igaro ostean iritsi ziren herrira. Guztira 12 orduko txangoa izan zen.

Horregatik, bidean galdutako indarrak berreskuratzeko, Zubietako elkartean batu eta ederki afaldu zuten guztiek elkarrekin. •



Ausartu zaitez gidabaimena euskaraz ateratzera, uste baino errazagoa da!

Askok uste dute gidabaimena euskaraz ateratzea zailagoa dela, baina hori ez da egia. Euskaraz zein gaztelaniaz dira hitz teknikoak zailak ulertzeko; gaiak berak baitu zailtasuna, ez da hizkuntza kontua. Buruntzaldeko Udaletako ordezkariak bildu dituzten emaitzek garbi utzi

dute ez dela beldurrik izan behar azterketa euskaraz egiteko garaian. 2010ean gidabaimena ateratzeko eskolak euskaraz jaso eta azterketa euskaraz egin dutenaren artean, %70etik gora gairiditu dute, beraz, gaztelarazko eta euskarazko azterketen datuak parekoak dira.

Semaforo berde! Gidabaimena euskaraz* ekimenean parte hartzen duten pertsonen gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera izango dute eta gainera, Buruntzaldeko Udalei esker, azterketa euskaraz egin eta gairiditzen dutenen artean, zozketa egin (auto-eskola bakoitzeko sari bat) eta hamarrei matrikula baten dirukopurua itzuliko zaie.

daude zerbitzua euskaraz emateko. Buruntzaldeko Udalak, iaiz bultzatu zuten lehen aldiz egitasmoa, eta parte hartu zuten auto-eskolei beharrezko zituzten bitartekoak lortzen lagundu zieten. Horrela, auto-eskolek badiutze ordenagailuetan erabiltzeko multimedia aplikazioak, liburuak eta beste euskarri guztiak, euskaraz. Beraz, informazioa euskaraz izanagatik ez da eragozpenik azterketa gairiditzeko.



Lasarte-Oriako hiru auto eskoletan atera daitezke gidabaimena euskaraz.

Gero eta balduago

Euskara gidabaimena ateratzeko prozesura eramateko egitasmo honen arrakasta jakina da, eta Jaurilaritzak erkidegoan zabalteko erabakia hartu du.

Debagoiena bilaran jaiotako proiektua jada beste eskualde batzuetara zabaldu da eta gehiago zabalteko asmoa dute.

Jaurilaritzak ahaletan berezia egingo du maiatza eta ekainean egitasmoa komunikabideen bidez zabalteko.

Interesatek herriko auto-eskolelara jo beharko dute zuzenean eta han jasoko dute eman beharrezko pausuen berri. Lasarte-Orian, Geltoki kaleko Izarra, Kale Nagusiko Lasarte eta Zumaburuko Mugica auto-eskoletan atera daitezke gidabaimena euskaraz.

onartzen dira soilik, hau da, ez dago hiru galdera baino gehiagotan akatsa egiterik.

Dena den, estatistikei dagokionez, oso emaitza onak izan direla adierazi dute Buruntzaldeko Udaletako ordezkariak: 2010ean gidabaimena ateratzeko ikasketak euskaraz jaso eta azterketa ere euskaraz egin zutenen %72k gairiditu zuen.

Laurden batek soilik errepikatu behar izan zuen eta aipagarri da, gaztelarazko eta euskarazko azterketen datuak parekoak direla, eskualdeko Udalek azpimarratu dutenez.

joango zara eta ahalik eta arinen joango zara.

• Abiadura 60 km/h gutxituko duzu.

08.- Marxta asko moteltzeko asmoa duzula, nola adieraziko duzu?

- Balazta argiak behin eta berriz erabiliz edo besoa goitik behera txandaka mugituz.
- Balazta argiarekin eta ezker edo eskuin norabide adierazlearekin.
- Eskuineko norabide adierazlearekin.

09.- Autobia baten matorragatik ibilgeturik geratzen diren ibilgailuko bidaariak, galtzadatik ibili daitezke?

- Bai, gailu distiragarriak eramaten badituzte.
- Bai, beti ere ezkeretik badabilta.
- Ez, inoiz ere ez.

10.- Nahitaez zein ibilgailuk izan beharko du derrigorrezko aseguru?

- Bide publikoetatik zirkulatzen duten ibilgailu guztiak.

- Motor-bizikletak izan ezik ibilgailu motordun guztiak.
- Ibilgailu motordun guztiak, motor-bizikletak, atotiek eta erdi-atotiek.

11.- Herri barruan arau orokor bezala zein erreirik zirkulatu behar duzu?

- Beti eskuineko erreirik.
- Erreirik mugatuta egon edo ez, bere helmugarako gehien komeni zaionetik.
- Erreirik luzetarako bide-marrez mugatuta badaude, bere helmugarako gehien komeni zaionetik.

12.- Gidari gazteek zirkulazio arrikuak okerrago neurtzen dituzte?

- Bai, eta horregatik batzuek istripu gehiago izaten dituzte.
- Ez.
- Bai, baina ez dituzte trafiko-istripu gehiago izaten.

Erantzun zuzenak, www.buruntzaldea.org helbidean

Buruntzaldeko edozein herrian atera daitezke gidabaimena euskaraz, guztira hamar auto eskolek parte hartzen dute kanpainan, eta bakoitzean gidabaimena euskaraz atera duen pertsona bati Udalek itzuli egingo die parte teorikoari dagokiona (matrikula bat, gehienez ere 400 euro izango dira).

Lasarte-Orian, hiru dira ekimenean parte hartzen duten auto-eskolak, Izarra, Lasarte eta Mugica, beraz hiru izango dira zozketen sariak. Hauek azterketaren alde praktikoari dagokiona soilik ordainduko dute.

Auto eskolak iaizt prest

ZURE GAITASUNA NEURTU NAHI AL DUZU?

01.- Orokorrean, distrazioengatik istripu gehiago non gertatzen dira?

- Errepide bihurguneetan.
- Herri barruko bideetan.
- Autobide eta autobietan.

02.- Zubi mugikor batera heltzen bazara, eta langa mugikorrek mugimenduan badaude, zer egingo duzu?

- Beste irteera bat bilatuko du.
- Azkar pasatuko naiz langak guztiz jaitsi baino lehen.
- Errei egokian geratuko naiz.

03.- Gidari berri batek gehiengo alko-holemia tasa zenbatekoa izango du?

- 0,25 gramo litro odoloko.
- 0,5 gramo litro odoloko.
- 0,3 gramo litro odoloko.

04.- Aparatzeko atzeraka zirkulatu daitezke?

- Bai, 15 metro gehienez.

- Bai, ezinbesteko distantzia nahiz eta 15 metro gairiditu.
- Ez, debekatuta dago.

05.- 2 urte baino gutxiago ume batek, zenbat toki betetzen ditu kotxe batean?

- Toki baten %50.
- 2 urte baino gutxiago baditu, bat ere ez.
- Bat.

06.- B gidabaimena baduzu, A gidabaimenak gidatzea baimentzen dituen ibilgailuak gidatu ditzakezu?

- Motor-bizikletak bai, motorrak ez.
- 125 cc baino gehiagoko motorrak.
- Motorrak bai, motor-bizikletak ez.

07.- Autobia uzteko...

- Itteeraino zure erreirik jarraituko duzu.
- Itteeraino hurbilen dagoen erreira

Orain gidabaimena EUSKARAZ

SEMAFORO BERDEA!!

AZTERKETA TEORIKO BATEN ZOZKETA AUTO-ESKOLA BAKOITZKO
(Azterketa teoriko bat, gehienez 400 euro)

BURUNTZALDEAN NON:

| | | |
|------------------|----------------------|--------------|
| Andoain | Juan Bautista Erro 9 | 943 59 44 06 |
| BENGOETXEA MENDI | Aguatza de Leitza 11 | 943 30 06 04 |
| Antigarraga | Polotari 6 | 943 33 22 11 |
| Hernani | | |
| HERNANI | Latornabe 3 | 943 55 05 34 |
| | Urbietan 7 | 943 55 34 16 |
| OTAMENDI | Leizua 1 | 943 55 35 45 |
| Lasarte-Oria | | |
| IZARRA | Geltoki 11 | 943 37 70 05 |
| LASARTE | Nagusia 5 | 943 37 06 92 |
| MUGICA | Gambro 1 | 943 36 22 75 |
| Urnieta | | |
| SOLOZABAL | Idiazabal 24-1C | 607 61 64 16 |
| Usurbil | | |
| SOLOZABAL | Iruña 2 | 943 37 69 36 |

HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!!

EMAN BIDEA

DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO!

www.buruntzaldea.org

Andoain, Antigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordeak

Egunero

Erakusketa

PALESTINA ETA GOLANeko giza euskubideak argazki erakusketa Mundu Bat GKE-ren eskutik. Jalgin, egun osoa.



Ostirala, 27

Kontzertua

HIRA taldearen kontzertu akustikoa. Jalgi kafe-antzo-kian, 23:00etan.



Kontzertua

FLASH BACK taldearen pop-rocka doaneko emanaldian. Abend kafe-antzo-kian, 00:00etan.



Beatlesen abestiak entzuteko aukera Mendi Kafe Rock-en

Psicoacoustic emanaldia, bertan Beatles taldearen lehen etapa entzun ahalko da.

GAUR, OSTIRALA 27
MENDI KAFE ROCK-EN
20:30EAN

Larunbata, 28

Kontzertua

HARMONIA ABESBATZAREN emanaldia. Kataluniatik datorren talde hau, Alboka abesbatzarekin eginiko elkar trukearen ondoren dator. Brigitarren komentuan, 20:00etan.

Osteguna, 2

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "NERABEAREN AURPEGIAK" Meskal Rosen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

IX. Antzerki eta Dantza Astea EUSKARAZ, KULTURETXEAN

Ostirala 27

19:00etan

Mutilik ez dago, ala? eta Baietz harrapatu, Txanogorritu, DBH 1.

Larunbata 28

18:30: Ikasleen *desfilea* herriko kaleetan zehar.

Igandea 29

19:00etan

Dantzaz *Blai* emanaldia eta *Euskal Dantzak*.

Zabaletako Jaiak

Asteartea, 31 eta Asteazkena, 1

18:00: Haurren jolasak eta ondoren japoniar bonbak.

Osteguna, 2

18:00: Haurren antzerkia, oparien zozketa eta japoniar bonbak.

Ostirala, 3

18:00: haurren antzerkia eta ondoren merienda.

19:00: Porrotx pailazoarekin txupinazoa.

20:00: Teresa sorginaren jaitsiera auzoko trikitilarietara.

22:00: dantza garaikidearen emanaldi handia.

23:00: Xumela abesbatza eta ondoren Itzartu eta Ahuen taldeak.

Larunbata, 4

09:00: diana.

11:30: J. Migel Aranzadiren oroimenezko IV. Eskoba txapelketa.

15:30: J. Migel Aranzadiren oroimenezko IV. Mus txapelketa.

16:00-19:00: Irrien lagunen puzgarri festa.

17:00: Toka txapelketa.

19:00: Hipo eta Tomax.

23:00: bertso saioa: Ane Labaka, Uxue Alberdi, Andoni Otamendi, Julio Soto eta gai jartzen Unai Muñoa.

00:00: Gaueko Itzalak, Eratu eta talde sorpresa.

Igandea, 5 *Denok baseritarrez jantzia*

09:00: diana eta auzo garbiketako txapelketa.

11:00: Landaberri ikastolako dantza saioa.

12:45: proba mistoa: Tellerigaina-Auzoko gazteak eta Larrekoetxe/Ostadar-Erkide eta ondoren Idi proba.

14:30: herri bazkaria eta ondoren erromeria.

18:00: herri kirolak haurrentzat.

20:30: Teresa Sorginari agurra eta azken traka.

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, maiatzaren 27an Lasarte-Oriako Etxerategi kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udalen zentroan aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan datorren asteleheneroan, hilaren 30ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Auzo zaitzete, odola ordetzazina da eta odol falta dago!

Arrantza txapelketa

Buruntz-Azpi elkarrekin jakin arazten du maiatzaren 29an,

elkartearren arrantzaldi arineko txapelketa antolatuta dela.

Txapelketak, goizeko 09:00etatik 12:00etara, Leizaran ibaiko eremu librean izango du leku.

Mahai jokoetan izena emateko epea irekia

Biyak-Bat erretiratuen elkarrekin jakinarazi nahi du San Pedroko jaien barruan ospatzen diren mahai joko eta mugimenduzko jokoak ekainaren 8tik aurrera hasiko direla jokatzen.

Hauetan parte hartu nahi duenak, maiatzaren 25etik aurrera egoitzako bulegotik pasa beharko du izena emateko. Inskripzio epea ekainaren 3an itxiko da.

Paella txapelketa

Ekainaren 4an paella txapelketa egingo dute Gazte Klubeko gaztetxoek. Eguerdiko 12etan hasiko da Amaraun ludotekan bertan.

Izena emateko azken eguna ekainaren 2a da (2a barne). Horretarako telefonoz deitu dezakezue 943 371448 zenbakira edo pasa Ttakun Kultur Elkartetik (Geltoki kalea 4). Animatu zaitzete!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren esku-muturreko bat, bi zilarrezko

pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, bi telefono mugikorrek bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4

Tel.: 943 366858

txintzarri@txintzarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintzarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka



HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Telekomunikazio instalazioak **berria**

GOI MAILA

- Fabrikazio mekanikako diseinua
- Sistema Elektroteknikoak eta automatizatuak
- Gizarte eta kultur animazioa **berria**

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

- Mekanizazioko langilea **berria**
- Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarritzko zaintzetako laguntzailea



SARBIDEKO PROBA

- Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa

ESKAINITZA PARTZIALA

- Instalazioa elektriko eta automatikoak: Hernani, Easo eta Usurbilen arteko plana



AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 10era

institutua@hernanibhi.com

www.hernanibhi.com

A. ITURRIAGA • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxa: 943 552271 • 20120 HERNANI
K. LABAKA • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxa: 943 330550 • 20120 HERNANI



Exitxarro
erretegia

Etorri, probatu
eta ikusi gure kalitate-prezio ona

Berria!

Astebukaerako menua

Karta

Despedidak
Bataioak

Familiarteko bazkariak
.....

Txikiardi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

Salesianos Urnieta Salesiarrak

BATXILERGOA - BACHILLERATO
FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEZIKETA



ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

maiatzak 28, 10:00-13:00
28 de Mayo, 10:00-13:00



Diseinu grafikoa, Inprimaketa, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika
Diseño Gráfico, Impresión, Mecánica, Electricidad, Electrónica

www.salesianosurnieta.com

SALESIANOS urnieta
 SALESIARRAK

zatoz ven